

## **DESKRIBAPENA**

Enpresa berri bat sortzean oinarritzen den proiektu bat egiteko proposamena luzatu zaigu. Jakin badakigu, enpresa batek funtzionatu dezan, lau fase burutu behar direla, hala nola, plangintza, antolakuntza, kudeaketa eta kontrola. Lehenengo biak enpresa sortu baino lehen egin beharrekoak dira, eta hurrengo biak enpresa martxan jartzen denean. Hala ere, enpresa sortutakoan berriro ere hasierako biak burutu behar dira enpresa hobetzeko. Hori bai, guk oraindik gure proiektua martxan jartzeko aukerarik izan ez dugunez, lehenengo bi pausuak burutu ditugu, plangintza eta antolakuntza alegia.

Hasteko, plangintzari dagokionean, merkatuaren azterketa txiki bat egin genuen eta beharrezkoak ziren baina asetzen ez diren beharrak behatu genituen. Konturatu ginen, nagusiki pertsona heldu eta ezgaitasun fisiko eta psikologikoak dituztenek haien egunerokotasunean beharrak betetzeko arazoak izan ohi dituztela, eta hauek konpontzeaz arduratzen erakunderik gure inguruan ez dagoela. Horregatik, horren gainean lanen jarri gara eta baita sakonago ditugun helburuak finkatzen. Bestetik planifikatutakoa antolatu dugu, hau da, egingo duguna nola egingo dugun erabaki dugu, canvas metodoa jarraituz. Beraz, hona lan honetan gure enpresaren antolakuntza eta nondik norakoak zehazten dituen txostena.